III SAN SILVESTRE DONOSTIARRA TXIKIA

ARAUDIA

San Silvestre Donostiarraren jarduera osagarri gisa, eta hura baino bi egun lehenago (igandea 29ean), haur lasterketa bat antolatuko da. Bertan, 15 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, honako kategoria hauetan:

- ❖ TXIKIAK, 6 - 7 urte. Ibilbidea: 200 m
- ❖ BENJAMINAK, 8 - 9 urte. Ibilbidea: 300 m
- ❖ ALEBINAK, 10 - 11 urte. Ibilbidea: 677 m
- ❖ INFANTILAK, 12 - 13 urte. Ibilbidea: 1.275 m
- ❖ KADETEAK, 14 - 15 urte. Ibilbidea: 1.275 m

➢ Lasterketa asfalto gainean jokatuko da, Autonomia kalean zehar antolatuko den ibilbidean. Irteera eta helmuga Easo plazan izango dira.

➢ Kategoria bakoitzaren irteera 11:00etatik aurrera egingo da; beraz, lasterkari guztiak ordu-laurden lehenago bertan egotea eskatzen dizuegu.

➢ **Izen-ematea gure web gunearen bidez egitea posible da, sansilvestredonostiarra.com**

➢ **Parte hartzeak 2 euroko kostua izango du, eta bildutako dirua irabazi-asmorik gabeko elkarteari emango zaio osorik.**

➢ **Dortsala jasotzeko 2 aukera izango dira: abenduaren 28ean, 18:00 – 20:00, Amarako Frontoian edo abenduaren 29ean 10:00 tatik aurrera Easo plazan.**

➢ Parte-hartzaile guztiei kamiseta bat oparituko zaie dortsala jasotzen duten unean, eta kamiseta hori jantzita parte hartu beharko dute lasterketan.

➢ Ez da saririk izango lehen sailkatuentzat; lasterketaren helburua haurrek parte hartzea da, ez lehia sustatzea.

➢ Proba amaitutakoan, txokolatada bat eskainiko zaie parte-hartzaileei.

➢ Antolakuntzak ez du bere gain hartzen arau hauek ez betetzeak sor litzakeen kalteen erantzukizunik ez eta lasterkarien axolagabekeriak edo arduragabetasunak eragindakorik; hala ere, probak berezkoak izan ditzakeen ezbeharrak estaltzeko Istripuetako eta Erantzukizun Zibileko Asegurua du.

➢ Izena ematean baimena ematen zaie antolatzaileei lasterketaren edozein argazki, filmazio, grabaketa edo bestelako edozein irudi erabiltzeko, trukean ordain ekonomikoaren ezein eskubide izan gabe.

AMARA KIROL ELKARTEA

San Silvestre Donostiarra

GARA SUPER AMARA